

AURRERAPEN-DOKUMENTUA
AURRETIAZKO KONTSULTA
PUBLIKOAREN IZAPIDEA, 2019AN
EUSKARAZKO ALDIZKAKO
ARGITALPENAK ARGITARATZEKO DIRU-
LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN FORU
DEKRETUAREN PROIEKTUAREN
AURRERAPENARI DAGOKIONA

DOCUMENTO DE AVANCE
TRÁMITE DE CONSULTA PÚBLICA
PREVIA DEL AVANCE DEL PROYECTO
DE DECRETO FORAL REGULADOR DE
LAS SUBVENCIONES DESTINADAS A LA
EDICIÓN DE PUBLICACIONES
PERIÓDICAS EN EUSKERA DURANTE EL
AÑO 2019

Euskara eta Kultura Sailak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, beharrezkoa ikusten du bultzatzea Bizkaiko merkataritza-sozietateek, kooperatiba-sozietateek, banakako enpresaburuek, profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek argitaratzen dituzten euskarazko aldizkako argitalpenak, herritarrek euskarazko informazioa erabiltzea eta kontsumitzea sustatzeko, eta euskararen erabileraren garapena eta normalizazioa bermatzeko.

a) Arauketa berriaren bidez konpondu nahi den arazoa

Bizkaiko Lurralde Historikoan euskarazko aldizkako argitalpenen edizioa bultzatzearen xedea da euskaraz kalitatezko informazio-edukiak eta aldizkako argitalpenak sortzeko sare bat garatzen laguntzea, diziplina anitzeko informazioa (tokikoa, eskualde mailakoa edo orokorra) euskaraz jaso nahi duten pertsonak erakartzeko.

Halaber, arlo horretan laguntza ematen duten beste administrazio publiko batzuekin (foru-aldundiak, Eusko Jaurjaritza) koordinatuta, Bizkaian ekoizpen-sare hori

El Departamento de Euskera y Cultura, a través de la Dirección General de Euskera, considera necesario promover la edición de publicaciones periódicas en euskera realizada por sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias individuales, profesionales y personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro de Bizkaia, con el fin de fomentar el uso y consumo de información en euskera por parte de la ciudadanía, y asegurar el desarrollo y normalización del uso del euskera.

a) Problema que se pretende solucionar con la nueva regulación.

El apoyo a la edición de publicaciones periódicas en euskera en Bizkaia pretende ayudar a desarrollar un tejido productivo de contenidos informativos y publicaciones periódicas en euskera de calidad, que atraiga a las personas que deseen disfrutar de información multidisciplinar de ámbito local, comarcal, o general en euskera.

Asimismo, pretende contribuir de forma coordinada con otras Administraciones Públicas (diputaciones forales, Gobierno vasco) que prestan su ayuda sobre la materia, a la consolidación de dicho tejido



sendotzen lagundu nahi da.

productivo en Bizkaia.

b) Testu arauemaile hau onartzeko beharra eta egokiera

b) Necesidad y oportunidad de aprobar el texto normativo.

Testu arauemailearen planteamenduan ezinbestekotzat jotzen da administrazio publikoen arteko koordinazioa dauden baliabide publikoak optimizatzeko. Hala, beste administrazio batzuekin koordinatuta lan egingo da (HAKOBAREN bitartez), Bizkaian euskarazko aldizkako argitalpenak argitaratzeko laguntza-irizpideak formulatzeko, Euskararen Legean xedatutakoaren arabera, botere publikoen ardura baita gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzea, herritarrek salerosketako, kulturako, elkarteetako, kiroltako, erlijiozko edota beste edozein motatako jardura guztiak euskaraz garatu ahal izan ditzaten.

El planteamiento del texto normativo toma como base la necesaria coordinación entre Administraciones Públicas para optimizar los recursos públicos disponibles. Así, se actuará de forma coordinada con otras Administraciones (a través de HAKOBA) en el planteamiento de criterios de ayuda para la edición de publicaciones periódicas en euskera en Bizkaia, toda vez que corresponde a los poderes públicos, tal y como señala la Ley del Euskera, fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua en las diversas actividades mercantiles, culturales, asociativas, deportivas, religiosas y cualesquiera otras.

Proposamenaren funtsa da administrazioan ematen ari den aldaketa, pertsona juridikoekin eta profesionalekin duen harremana baliabide elektronikoetan oinarritzeko. Beraz, aldaketaren garai hau Bizkaian orain arte aldizkako argitalpenei ematen zitzaizkien laguntzak beste administrazio batzuekin koordinatuta berritzeko baliatzea egokia da lurralde historikoan halako edukiak sortzen dituen sareari egonkortasuna emateko.

La oportunidad surge del momento de cambio que está experimentando la Administración hoy día hacia un modo de relación con las personas jurídicas y profesionales basado en el ámbito electrónico. Aprovechar el momento de cambio para renovar de forma coordinada con otras Administraciones las ayudas que hasta la fecha se atribuían a las publicaciones periódicas en Bizkaia resulta, en tal sentido, oportuno, con el objeto de dotar de estabilidad al tejido productivo de tales contenidos en el Territorio Histórico.

c) Arauaren xedea

c) Objeto de la norma.

2019ko ekitaldian aldizkako argitalpenak euskaraz ateratzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietatei, kooperatiba-sozietatei, banakako enpresaburuei, profesionalei eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei Euskara eta Kulturako

Aprobar las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales que se concedan por el Departamento Foral de Euskera y Cultura destinadas a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias



Foru Sailak ematen dizkien diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onestea.

individuales, profesionales y a las personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro vizcaínas que editen publicaciones periódicas en euskera durante el ejercicio de 2019.

d) Planteatutako arazoa konpontzeko egon daitezkeen bestelako aukerak (arautzaileak eta arautzaileak ez direnak)

d) Existencia de soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias al problema planteado.

Aipatutako xederako diru-laguntzak emateko dekretu bat onartzea elementu positiboa izan daiteke botere publikoei dagokien eginkizuna betetzeko, hau da, gizarte-bizitzako alor guztietan euskararen erabilera sustatzea, herritarrek edozein motatako jardueratan euskara erabiltzeko aukera izan dezaten.

Se considera que la aprobación de un decreto de subvenciones destinado al fin señalado puede ser un elemento positivo para cumplir la función asignada a los poderes públicos, esto es, fomentar el uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social, a fin de posibilitar a la ciudadanía el desenvolvimiento en dicha lengua en cualquier actividad que desarrolle.

e) Arau-proposamenak ukitutako xedetaldeak, zeinei zuzendu behar zaien

e) Públicos objetivos afectados por la propuesta normativa y a quienes se debe dirigir.

Foru dekretu hau 2019an euskarazko aldizkako argitalpenak ateratzen dituzten Bizkaiko merkataritza-sozietate, kooperatiba-sozietate, banakako enpresaburu, profesional eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoentzat da, betiere sozietate-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute.

El decreto foral se dirigirá a las sociedades mercantiles, sociedades cooperativas, personas empresarias individuales, profesionales y a las personas jurídicas privadas sin ánimo de lucro vizcaínas que editen publicaciones periódicas en euskera durante el ejercicio de 2019, y que tengan su sede social en el Territorio Histórico de Bizkaia.